

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 1/2016 Foru Dekretua, urtarrilaren 12koa, honako hau aldatzen duena: 7/2008 Foru Dekretua, otsailaren 5ekoa, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga dela eta, Higiezinaren Katastroan eraikin berrien alta xedatuko duten arauak aldatzen dituena

Aldaketa honen xedea da otsailaren 5eko 7/2008 Foru Dekretua egokitzea gainerako katastro araudira. Horretarako, araudi horrek egiten duen bezala, agiri jakin batzuk era digitalizatuan eta adierazitako formatuan aurkezteko eskatuko da, eraikuntza berriei higiezinaren katastroan alta emate aldera.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak honi buruz egindako txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hona hartu den

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea otsailaren 5eko 7/2008 Foru Dekretua, aldatzen dituena higiezinaren katastroan eraikuntza berrien alta arautuko duten arauak, ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako.

Bat. 1. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"1. artikulua. Aurkeztu behar diren agiriak

1. Arabako lurralde historikoan kokatzen den eraikuntza berri baten sustatzaileak honako agiriak aurkeztu beharko ditu foru aldundian:

a) Eraikinak lurzatiaren barruan duen kokaera eta kokapen planoak. Plano horiek geoerreferentziaturik egongo dira proiektuko U.T.M. ETRS89 koordinatuen sisteman.

b) Dauden solairuen planoak.

c) Altxaeren planoak eta sekzio bertikal bat.

d) Eraikuntzan erabili diren materialen memoria.

e) Jabetza horizontalaren banaketa proiektua, agiri publikoan gauzatu beharrekoa. Proiektu horrek ondoko datu hauek jaso beharko ditu: garaje edo aparkalekutarako zenbat solairu utziko diren, baita bulegotarako ere, eta zona erkideak eta independenteak zein izango diren. Horiek guztiek, banaka, erabilera horietarako zona guztian zein partaidetza izango duten batez beste jasoko da.

f) Kasuan kasuko hirigintza baimenaren kopia

g) Babes Ofizialeko Etxebizitzaren behin-behineko Kalifikazioaren kopia, hala badagokio.

2. Aurreko paragrafoko a), b) eta c) letretan jasotako agiriak formatu bektorialean (dwg, dxf de AutoCAD o dgn de MicroStation fitxategiak) aurkeztu behar dira, eta, gainera, horien kopia paperean ere aurkeztu ahal izango da.

Bi. 4. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"4. artikulua. Agiriak aurkezteko epea

Dekretu honetako 1. artikuluan adierazitako agiriak dagokion eskaerarekin batera aurkeztuko dira foru aldundian, kasuan kasuko agiri publikoa eman baino gutxienez hamabost egun baliodun lehenago, eta espresuki adieraziko dira jarduketan eragina duten katastro erreferentziak."

Hiru. 5. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"5. artikulua. Administrazioaren jardunak

Aurreko artikuluan adierazitako epean, Arabako Foru Aldundiaren kasuan kasuko administrazio unitateak foru dekretu honetako 1. artikuluan eskatzen diren agiriak aztertuko ditu, eta horiek aztertzean sor daitezkeen desadostasunak ebatzi ondoren, ondorengo jardun hauek egingo ditu:

- a) Eraikuntza berriaren katastro fitxa egin
- b) Eraikuntza berriaren dauden zerga unitate guztiak identifikatu, bakoitzaren katastro erreferentziak emanez, .
- c) Higiezinaren katastroan sartu edo aldatu, eraikuntza berria jasota egoteko.
- d) Aipatutako aldaketan eta horien katastro balioen berri eman."

Lau. 8. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"8. artikulua. Prozedura orokorraren salbuespena

Katastroak duen benetako leku banaketa aldarazten duten lurzati banaketa, zatiketa, baterakuntza, bilketa eta halakoak egiteko, prozedura honi jarraituko zaio:

– Aipatutako aldaketa jasotzen duen agiri publiko zein edo pribatua egin ondoren, sustatzaileak agiri hori Udala Zerga eta Katastro Zerbitzuan aurkeztuko du, UTM proiektuko koordenatuetan georeferentziaturik dagoen informazio teknikoarekin batera (emaitzaren edo egindako eragiketa edo jardunaren berri emango du), formatu bektorialean emanda (dwg, dxf de AutoCAD edo dgn de MicroStation fitxategietan). Gainera, kopia aurkeztu ahal izango da paperean eta, hala badagokio, kasuan kasuko udal baimena (hiru lurzoruetan jarduteko) edo Nekazaritza Sailak alde aurretik egindako legezko tasun adierazpena (landa lurzoruan jarduteko), baterakuntza eta bilketa kasuetan izan ezik.

– Zerbitzu honek, aurkeztu diren agiriak egiaztaturik eta horiek aztertuta sor daitezkeen desadostasunak ebatzi ondoren, katastro ondorioetarako egin behar diren ohar eta aldaketak egingo ditu.

– Behin eragiketa horiek egin ondoren, Udala Zerga eta Katastro Zerbitzuak itzuli egingo dizkio bere garaian jasotako agiriak, katastro aldaketa eta katastro balioak agiri horiek aurkeztu zituenari, foru dekretu honetako 6.2 eta 6.3 artikuluetan xedatutakoari jarraituz, ondoren Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Atalean aurkez ditzan."

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urtarrilaren 12a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSE LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasuneko zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ